




Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
191. zkia . 2006ko urria



TAMALGARRIA BENETAN!

4-10. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa: Esther Esparza

15-17. Kasino Zaharra

20-21. XX.mende haserako lanbideak

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Iraileko demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 33
☎ 943 11 02 01
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



 **Aliprox**
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea • Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)




Hawaii

Errebellin kalea 3 behea

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

Euskararen erabilera kirol munduan



Hondarribiko Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) bidez euskararen erabilera bultzatzeko zenbait ekintza antolatu ditu.

Horretarako hiriko hainbat lan eremu aztertu ditu, hala nola, merkataritza, ostalaritza, kirol elkarteak....

Alor bakoitzaren premiak, gizartean duten eragina eta bestelakoak ikertu ondoren, merkataritza eta ostalaritzarekin hasi zen lanean Euskara Zerbitzua, eta duela bost urte abian jarritako plana garatzen jarraitzen du, urtez urte helburu berriak jarrita, beraz hori nolabait bideratuta dagoela ikusita eta emaitzak kontuan hartuta alor berriei ekin die.

Azken bi urteotan bete-betean kirol munduan sartu gara. Kirol munduari lehentasuna emate-

ko arrazoiak zein izan den argi dago, kirola egiteko zaletasunak nabarmen gora egin du, eta ondorioz, kiroldegi eta kirol elkarteetan ibiltzen den jende kopurua ere gero eta handiagoa denez herrian eragin izugarria du.

Iaz Udal Kiroldegian eta Arraun Elkartean jarri genuen abian Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana eta hori nolabait bideratuta badago ere, beraiekin lanean jarraitzen dugu, euskararen normalizaziorako oraindik bide luzea baitago egiteko, baina emaitzak nabaritzen hasi dira.

Aurten Pilota Eskolarekin hasi gara lanean eta ikusi dugu elkarte honek lehenetik ere urrats handiak emanak dituela eta bertako arduradunek euskararekiko jarrera ezin hobea dutela, beraz emaitza ederrak lortuko ditugulakoan gaude.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Lurdes Zubeldia

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK URRIAN ETA AZAROAN

22- ERAUSKIN San Pedro, 22 943 641018

29- MAYI MARTINEZ Alonso 943 642191

1- ALMAJANO Mendelu, 26 943 640068

5- IRAOLA San Pedro, 5 943 641027

12- SAGRARIO FIZ Sokoa merkatalgunea . . . 943 644316

19- ALMAJANO Mendelu, 26 943 640068

TXANDAKO OKINDEGIAK URRIAN ETA AZAROAN

22- ARRATIBEL Mendelu auzoa 943 641975

29- GARMENDIA Portuan 943 641136

1- MARTINEZ Kale Nagusia, 17 943 641212

5- ARRATIBEL Mendelu auzoa 943 641975

12- GARMENDIA Portuan 943 641136

19- MARTINEZ Kale Nagusia, 17 943 641212

Elgoibarko Jesus Mari Ansolak irabazi zuen V. Artzai Gazta Lehiaketa

Urriaren 15ean San Pedro kalean ospatu zen bostgarren aldiz Artzai Gazta Txapelketa. Hondarribiko Ostalaritza Elkarteak antolatuta, Udalak eta Idiazabalgo gaztaren kontseiluak babestuta, eguraldia lagun, oso ekitaldi arrakastatsuaz gozatu ahal izan zen.

Garaile Elgoibarko Jesus Mari Ansola izan zen, 334 puntu lortu zituelarik. Bigarren tokian Angel Unzoain nafarra sailkatu zen eta hirugarren Iñigo Eizagirre gipuzkoarra.

Bosgarren edizio honetan, sari ekonomikoa eta lehenaren-tzat kapeluaz gain, lehen sailkatuei Ama Guadalupekoa trairneruaren irudi bat eman zitzaien, duela aste gutxi TKE Liga irabazi zuena hain zuzen.

Azken sailkapena honako hau izan zen:

1.- Jesus Mari Ansola	Elgoibar	334 puntu
2.- Angel Unzoain	Iragi	297 puntu
3.- Iñigo Eizagirre	Aia	292 puntu
4.- Ricardo Remiro	Eulate	290 puntu
5.- J. Aramburu	Idiazabal	280 puntu
6.- Pedro Zuzuarregi	Tolosa	273 puntu
7.- Meabe Ruiz	Gujuli	264 puntu
8.- Berastegi Elkarte	Azpeitia	259 puntu
9.- Audikana Anaiak	Gereñu	255 puntu
10.- Galtzata	Oiartzun	249 puntu



Artzai Gazta Lehiaketak giro bikaina ekarri zuen

Ezezagunek Remigio Mendibururen 'Txalaparta' eskultura hondatu dute



Udalak eskultura bere tokitik kendu behar izan du

Guadalupeko santutegiaren atzeko aldean kokatuta dagoen Remigio Mendibururen (1931-1990) Txalaparta eskulturak ezezagunen erasoak jaso zuen, ustez ostegun gauean.

Hondarribiako Udalak, artelanari konponketak egitearren bere lekutik kendu duela iragarri du agiri baten bitartez. Udalak adierazitakoaren arabera, "ibilgailuren bat edo erabilia, hormigoizko hiru oinarrietatik atera egin dute Mendibururen brontzezko eskultura". Artelanak zenbait kalte serio izan ditu eta Udal langileek erretiratu dute eskultura, "lehenbailehen konponketa lanak egitera eramane eta bere lekura itzultzeko asmoarekin", Kultura arlokoek adierazi dutenez.

Txalaparta, 1961ean egin zuen Remigio Mendiburuk eta zenbait hamarkada daramatza Guadalupeko santutegi atzeko belardian.

Hondarribiako Udalak, bere agirian, "gogorki gaitzetsi" du eraso hau, "Remigio Mendiburu eta bere lana hain estimatuak baitira bere jaiotze herria den honetan". Justu aurreten betetzen dira 75 urte Mendiburu jaio zela. Hau zela eta, duela hilabete batzuk, Alde Zaharreko kale bati eskultore ezagunaren izena jarri zitzaion Hondarribian.

Hortaz gainera, aldizkari honek jakin duenez, Udalak hitzaldi ziklo bat prestatzen ari da, besteak beste, azarorako, urtemuga berezi honetan Remigio Mendibururi omenaldia egiteko.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Udalak lehiaketa baten deialdia egin du zenbait nekazal bide birgaitzeko

Udalak lehiaketa ireki baten deialdia egin du hiriko zenbait nekazal bide zolatu eta egokitu ahal izateko. Lehiaketa hau arautuko duen baldintza-orria pasatako irailaren 29an argitaratu zen Gipuzkoako Bole-tín Ofizialean.

Lanak burutu ahal izateko bi hilabetetako epea egongo da eta eskaintza ekonomikoa gehienez 295.261,92 eurokoa izango da BEZ barne. Kopuru hau eskaintzaileak hobetu ahal izango du beti ere, kopurua gutxituz.

Esleipenean jarraituko diren irizpideak honako hauek izango dira: eskaintza ekonomikoa, gauzatze epea eta obraren antolamendua.

Informazio gehiagorako, interesdunek BAZ-era jo dezakete, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, eta larunbatetan 10:00etatik 13:30etara.

Gregorio Berrotaranek Nekazaritza eta Mendi zinegotziak esan zuenez, "hiri osoan banatuak dauden zenbait nekazal bide hobetuko dira. Behar gehien duten zatiak dira, batzuk hemen eta besteak han".

Zinegotziak Jaizkibel mendiko pistak ireki direla aditzera eman zuen. "Urtero udan itxi egiten ditugu, jendea autoekin barneraino sar ez dadin, eta ahal den neurrian mendia errespetatua izan dadin".

Udaletxeko Nekazaritza Departamentutik gogoratu nahi da ibiltari guztiei naturaz goza dezatela mendia errespetatuz; adibidez, moto eta ibilgailuen zarata gogaikarrik sortu gabe, eta abereak loturik eraman ditzatela istripurik ez sortzeko.



Birgaituko diren nekazal bideak hiri osoan zehar daude

"Aireportuak etorkizuna izango du eredu deszentralizatu bat ezarriz gero" dio Txabarrik

Konpainia baten monopolioa amaituta prezioek behera egin dute eta erabilerak gora

Joan den irailaren 28an Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Ahaldu Nagusiak Gipuzkoako Batzar Nagusietan hitz egin zuen. Beste gauza askoren artean, Hondarribiko aireportuaz aritu zen. Txabarriren hitzetan, "dikotomia egoera baten aurrean gaude. Errealitate objektiboa adierazgarria da, datuak hor daude: bidaiari eta eragiketa kopurua haunditu egin da, %13 uztailen eta %16 abuztuan. 50 urte da aireportu hau zabaldu zela eta lehen aldiz konpainia bakar baten monopolio izateari utzi egin dio. Horrek, hasteko eskaintza ugaritzea eta prezioak nabarmen jaistea eragin du".

"Aireportuak badu etorkizuna" jarraitu zuen Ahaldu Nagusiak, "deszentralizatutako kudeaketa eredu bat ezarriz gero eta euskal aireportu sistema orokor baten barruan sartuz gero, osagarritasun bokazio garbiarekin, eta etorkizuna du aireportuko azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzeko lanei behingoz ekiten bazaie. Sustapen Ministerioak ezin die entzungor egin Gipuzkoako eragile sozioekonomikoek eta erakundeek ia aho batez egin duten eskaerei".

"Aurten bertan gauzatuko den Ortzibiak, Hondarribiko aireportua sustatzeko sozietatearen eraketak, eta Irun zein Hondarribiko udalekin zabaldu den lankidetzaren bidez, aireportuaren etorkizuna eta Txingudi ingurua hobetzeko hiri-gintza planak bermatu ahal izateko" amaitu zuen jeltzaleak.



Gonzalez de Txabarri Ahaldu Nagusiaren irudi bat

Txingudi Egunaren edizio berria

"Hiru hirietako elkarteek antolatu dituzte aurten ere ekitaldiak"

Uda amaitzen denean azken urte hauetan Hondarribia, Irun eta Hendaiako biztanleek hitzordu bat izaten dute Txingudi Egunarekin. Hiru hirien anaitzea bilatzen duen egun honetan, zenbait aldaketa ikus ahal izan ditugu aurten. Horien artean, nagusia antolamendua izan da.

Orain artean Bidasoa-Txingudi Mugazgandiko Partzuer-goia izan bada, iaztik hiru hirietako elkarteek bultzada ematea erabaki zen, eta horretarako hainbat bilera izan dira.

Nobedade ugari izan ditu aurtengo edizioak. Lehen aldiz, emakumez osatutako arraun txapelketa bat ospatu da. Hondarribia Arraun Elkartea, Santiagotarrak eta Hendaiako neskez gain, Isuntza, Zumaia eta Mutrikukoak elkartu ziren kirol ekitaldi deigarri honetan. Josebe Carcavilla izan da koordinatzailea, eta bere iritziz "jendeak erantzun positiboa eman du. Ekitaldi ugari ospatu dira, eta eguerdian Benta Zaharrean egin genuen bazkarian 500 pertsona baina gehiago bildu ginen".

Horren ostean, arratsaldean Kemen eta Eraiki Dantza Taldeen emanaldiak ikusi ahal izan genituen, eta iluntzean, San Pedro kalean, zezen suzkoen entzierroa, txaranga eta trikiritzeaz lagundurik.



Txingudi Egunean emakumeen estropada bat ospatu zen

Jaizkibia erakundearen sorrera atzeratu egin da

*Pasaialdea biziberritzeko erakunde arteko elkar-
tean ordezkatu behar duen pertsona ez du izendatu
Espainiako Gobernuak*



Pasaiaiko portuaren sarreraren irudi bat

Urriaren 6an eratu behar zela bazirudien ere, azkenean Pasaialdea biziberritzeko erakunde arteko elkarte, Jaizkibia ez zen sortu. Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, eraketa batzarra beste behin ere atzeratzearen arrazoia, "Espainiako Gobernuak egin behar zituen tramiteak bete ez dituelako" da. Era berean, Espainiako Gobernuari "atzerapen gehiago gabe, beharrezkoak diren pausoak" emateko eskatu dio. Jaizkibia osatuko duten beste eragileek atzerapenaren inguruko baloraziorik ez dute egin oraindik.

Jaizkibia, zazpi udalek osatzen dute alde batetik: Hondarribia, Irun, Pasaia, Lezo, Errenteria, Oiartzun eta Donostiak. Hortaz gain Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Espainiako Gobernuak ere izango dira elkar-teen zati. Osaketa burutu ondoren, elkarte berriaren estatutuak onartu dituztela eta, jarri beharreko diru kopurua zehaztuko da.

Pasaialdea biziberritzeko erakunde arteko elkarte sortzeko bilera noiz egingo den ez da zehaztu oraindik. "Ahalik eta azkarren" egiteko eskatu dute Aldunditik.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?

NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...

EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO

20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK

BAKARRIK

3,58.-euro

foto FRANAN

Zuloaga,4
Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Muliateko etxebizitzak eraikitzeke urrats berria eman du Udalak



Muliateko inguruak itxura hau aurkezten du orain

EAJ, EA, PSE-EE, PP eta EBren aldeko botoa eta Branka plataforma abertzalearen abstentzioarekin, Hondarribiako Udalbatzak behin betiko onespina eman zion atzo Muliateko Plan Partzialari. Eremu horretan egitekoak diren 400 etxebizitza ingururen proiektua bideratzeko beste urrats bat da.

Borja Jauregui alkateak (EAJ) atzoko ezohiko Udalbatzan azpimarratu zuenez, "irailaren 20an indarrean sartu zen Lurzoruaren Lege berriak gauzak erraztu egiten ditu horrelako operazioak arintzeko, hiriaren antolamendukoak udalen eskutan utzi baititu".

Muliateko lurren %62ren jabe den Azse enpresarekin lortutako akordioak dagoeneko jabeen %83ren onespina baduela azaldu zien hautetsiei Jaureguik: "Berez, erdia baino gehiagoren onespina izanda plangintzarekin aurrera egiten uzten digu legedi berriak. Baina onuragarria da jabe gehiagok akordioarekin bat egitea. Falta den %13ren adostasuna lortuko bagenu, bidea erraztuko genioke babes ofizialeko 240 etxebizitza inguru izango dituen plangintzari".

Hurrengo pausoak, alkateak adierazitakoaren arabera, hauek izango dira: "Batetik, Udala eta Muliateko jabeen artean Konpentsazio Batzarra sortzea eta, bestetik, batzar horretan bertan, Ekintza Urbanistikorako Plana, urbanizazio proiektua eta birpartzelatze proiektua onartzea".

Gurasoei zuzendutako tailerrak antolatu dira

Prebentzio Komunitario Zerbitzuak antolatu ditu eta irekiak dira

Hondarribiko Udaleko Prebentzio Komunitarioko zerbitzuak, guraso eta umei zuzendutako aurtengo tailerrak aurkeztu zituen prentsaurrekoan urriaren 10ean.

Batetik, azarotik otsailera, gurasoentzako trebetasun tailerrak egingo dira, seme-alabekin erlazionatzeko gaitasun eta trebetasunak hobetzeko teknikak lantzeko. Bestalde, ikastetxeetako guraso elkarteekin batera, aurtenera ere Gurasoentzako Heziketa Eskolak eskainiko dituzte. Programa honek, Richard Sanchez, Prebentzio zerbitzuko koordinatzailearen hitzetan, "pasa den ikasturtean, 250 guraso baino gehiagoren partaidetza eta inplikazio sakon eta arrakastatsua izan zuen".

Honetaz gainera, Gurasoentzako Gizarte Laguntza Taldeak ere martxan izango dira ikasturte honetan. Ricardo Sanchezek azaldu zuenez "talde hauek oso irekiak dira eta, bertan, gurasoek beraiek proposatutako gaiak eta problematikak jorratzen dira, profesionalen laguntzarekin. Honela, era guztietako gurasoek beraien bizipenak, kezak eta seme-alaben heziketaren aurrean sortzen zaizkien arazoak entzun eta lantzen dituzte", esan zuen Sanchezek. Bi lan-talde osatuko dira kasu honetan, 10 urte arteko umeen gurasoenak eta seme-alabak nerabazarozan dituztenenak. Azken hauei zuzenduta, Gizarte Laguntza Taldeak ere sortuko dira.

Ekimen guzti hauei buruzko informazioa jaso zein izena emateko, Damarri kaleko KZgunearen ondoko Prebentzio bulegoan egin daiteke, hil osoan zehar.



Prebentzio Komunitarioaren egoitza Harresilanda kalean dago



**BAR
HONDARRIBI**

**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



Jatetxea
txantxangorri

San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Azaroaren 15ean amaitzen da Bordari Satarka lehiaketako lanak aurkezteko epea

Zabalik dago jadanik XXII. Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketa. Urtero Hondarribiko Udaleko Euskara Batzordetik antolatzen den ipuin eta olerkien lehiaketa honetan parte hartu nahi duenak bi asteko epea dauka lana entregatzeko, azaroaren 15eko eguerdiko hamabietan amaitzen baita.

Bi modalitate desberdin daude, Bordari ipuin saria eta Satarka olerkiei. Lehiaketa bakoitzean bi maila desberdintzen dira.

Hemezortzi urtetik gorakoek A maila osatuko dute bi lehiaketetan. Kasu hauetan garaileak 800 euroko saria eta oroi-garri bat jasoko du.

Bigarren sailkatuak aldiz, 400 euro eta oroigarria eskuratu-ko ditu. B mailan parte hartzen dutenentzat, sariak 400 eta 250 eurokoak izango dira. Hortaz gain, Hondarribiko lan onenari beste sari bat gordetzen zaio atal bakoitzean.

Aurkeztutako lanek aurretik argitaratu gabeak izan beharko dute, eta gaia librea. Hortaz gain, zenbait baldintza bete behar dira lana baliagarritzat hartua izan dadin. Helduen mailan, ipuinak gutxienez hiru orrialdeko luzera izango du eta gehienez hamarrekoa. Olerkien kasuan, gutxienez 50 lerro izango ditu

lanak, eta gehienez 150.

Ipuinen neurriak

B mailari dagokionez, ipuinak 2 eta 6 orrialdeetakoak izan beharko du eta olerkiak, ordea, 40 eta 120 lerrotakoak.

Idatzia Euskara Batzordean aurkezterakoan, beste zenbait baldintza bete beharko ditu egileak. Izenburua, egilearen izenordea eta bertakoa den edo ez zehaztea. Sobre itxi batean azalean, aurkezten den lanaren titulua eta egilearen izenordea jarriko da, eta barnean, garrantzizkoak diren beste zenbait datu gehitu beharko ditu: izen eta deiturak, helbidea eta telefono zenbakia.



Joan den urteko edizioako irabazleak

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Mendiexporen hirugarren edizioa ospatu berri da



Mendiexpo Irungo FICOBAn burutu da

Mendiexporen hirugarren edizio honek aurkeztu dituen berritasunen artean, ekimen berri bat aipatu behar da; izan ere, mendiko eta espeleologiako klubei laguntza eskaini zaie erakusketari gisa etor daitezzen. Asmo horrekin, Pirinioen bi aldeetako 450 klubek baino gehiagok jaso zuten Azokan parte hartzeko proposamena, beren aukerako prezioan sei metroko stand txiki bat jarrita, beren jarduerak sustatu eta bazkide berriak egin zitzaten. Proposamen horren bidez, proposamen desberdinak eskaini nahi izan zaizkie Mendiexpoko bisitari, haietako asko mendizaleak dira eta.

Bestalde, aurten, leku bat egokitu da Erakustazokako pabiloietan, arropa eta material fabrikatzaileek kontsumitzaileak trebatu ditzaten materialen ezaugarrien, funtzioen eta abarren inguruan, azken batean, dibulgazio-lana egin dezaten.

Bi ekimen berri horiek Mendiexpoko ohiko erakusketa-ekaintza zabalari gehitu zaizkio hirugarren ekitaldi honetan; izan ere, aukera eskaini da bisitariak azken berritasunak zein diren jakiteko (material eta arropa teknikoa, eskia eta snowa, abentura-bidaia, ibilgailuak edo kartografiako materiala eta argialetxeen proposamenak). Antolatzaileen aldetik balorazio oso positiboa egin da.

Merkataritza eremuetan papera eta kartoiaren bilketa hobetzeko neurri berriak

Txingudiko Zerbitzuak posta bidez informazio kanpaina egiten ari da egun hauetan Irun eta Hondarribiko komertzioei begira. Bidasoa Beherea eskualdean papera eta kartoiaren bilketari soluzio gehiago eskaintzea dute xede. Datozen bi hilabeteetan, Txingudiko Zerbitzuak teknikari batek azalpen kanpaina bat egingo du sistema berriaren prozedurari buruz.

Txingudiko Zerbitzuak handitu eta aldatu egingo ditu papera eta kartoi biltzeko zerbitzuak bi udalerrietako komertzio, denda, establezimendu, taberna eta jatetxeetan urriaren 23tik aurrera. Neurri honek hobetu egingo ditu orain arte indarrean dauden baliabide eta zerbitzuak, kaleetan komertzioetatik datozen paper eta kartoiaren presentzia ahalik eta gehien murrizteko.

Merkatariengan eragina izango dute zerbitzuaren egindako aldaketek, horiek beren papera eta kartoi tolestaturatu sartu beharko dute edukiontzia barnean ahal den neurrian eta ez kanpoan. Horregatik, Txingudiko Zerbitzuak erraztasunak emango dituzte edukiontzi urdinen erabilerraren inguruan eta bikoiztu egingo dute bilketa zerbitzua. Bilketa hori egunez eta gauez egingo da Irun eta Hondarribiko merkataritza eremuetan egokitutako 72 edukiontzietan.

Egungo zerbitzuak eta urriaren 23tik, astelehenetik aurrera egingo diren aldaketak adierazten dira koadro honetan:

	EGUNGO ZERBITZUA	ZERBITZU BERRIA
Hiriko paperaren bilketa	Egunero Ordutegia: 22:30etatik 6:00etara. Batez beste 120 edukiontzi jasotzen ditu egunean.	2 zerbitzu egunean: Egunez eta gauez.
Atez ateko paper-kartoi bilketa Irun eta Hondarribiko merkatarientzat.	Ez dago horrelako zerbitzurik.	12:00ak eta 20:00ak artean. Telefonoz eskatu beharko da.



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
ASEGUROAK
Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Euskal literatura tailerra Udal liburutegian

(Kote Gebara, Udal liburutegia)

Udal liburutegiak -joan den urtean bezala, eta izandako arrakasta ikusiz-, aurtengo ikasturterako ere literatura tailerrak antolatu ditu. Iaz 30 lagun bi taldetan banaturik aritu ziren literaturari buruz solasean, eta urtean zehar liburu eta egile asko landu zituzten, horien artean Erri de Luca, Annie Ernaux, Mercé Rododera eta Josep Pla. Idazle batek ere bisita atsegina egin zien, Inazio Mujika Iraolak, eta bere liburua "Tiempo de cerezas" komentatu zuten literaturari buruzko hausnarketa batzuk eginez.

Aurten, ildo honetatik jarraituz, liburu eta autore berriak jorratuko dituzte; Mohamed Chukriren: "El pan desnudo", Stefan Zweigen: "Una partida de ajedrez", eta Vladimir Navokoven: "La defensa", besteak beste. Gainera, idazle batzuek bisita egiteko digute.

Ikasturte honetan nobedade pozgarri bat izango dugu, euskal talde bat sortuko baitugu. Orain arte ekitaldietako hizkuntza gaztelania izan da salbuespen baten bat izan ezik; taldeko partaide batzuek "Tiempo de " euskarazko jatorrizko bertsioa, "Gerezi denbora", irakurri zuten. Talde honek euskal literatura jorratuko du batik bat, genero eta gai ugari ukituz; Mariasun Landa, Salvador Zapiain, Atxaga eta beste egile batzuen liburuak irakurri eta komentatuko ditugu, baina literatura unibertsalari ere keinu batzuk egingo dizkiogu; Annie Ernaux eta Mercé Rododeraren liburuei, besteak beste. Ikasturtean zehar egile batzuk etorriko dira bere obra eta literaturari buruz hitz egitera.

Tailer hauek pentsamendu, gogoeta, eztabaida eta gozamenarako ate irekia izan dira beti. Hauxe dugu, hain zuzen ere, Literatura Tailerraren xede nagusia. Alegia, literaturako zenbait pasarte esanguratsu elkarrekin irakurri eta komentatu, tailerreko kideengan literaturarekiko grina piztea eta, bide batez, literaturaren ezaugarriak eta balioak ezagutzera ematea.

Datorren urriaren 3an literatura tailerrari hasiera emango diogu. Joan den urtean bezala hamabostean behin bilduko da eta hiru taldetan banatuko da.

Izen emateko epea datorren irailaren 25etik 30era irekiko da udal liburutegian goizeko 9etatik 14:00etara, larunbatean 10etatik 13:00era. Inskripzioak telefonoz (943111295) edo posta elektronikoz (liburutegia@hondarribia.org) ere onartuko dira.

2006-2007 Ikasturteko lehenengo hiruhilabeteko egutegia

	Urria	Azaroa	Abendua
ATaldea (gaztelaniaz)	3, 17	7,21	12,19
B Taldea (gaztelaniaz)	4, 18	8,22	13,20
Euskaraz	5, 19	9,23	14,21

Hiruhileko honetan landuko diren liburuak:

A eta B taldeak

Choukri, Mohamed.- *El pan desnudo*.
Zweig, Stephan.- *Una partida de ajedrez*
Nabokov, Vladimir.- *La defensa*

Euskal Taldea

Treku, Mari.- *Martin, ene gizona*.
Zapiain, Salvador "Ataño".- *Txantxangorri kantaria*.



**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Donibane Lohizune-Hondarribia lasterketa zortzigarren urtez

Urriaren 22an ospatu da 1500 korrikalarirekin

Euskar zirkuitu ofizialean jadanik bere tokia aurkitu duen lasterketaren aurkezpen ofiziala 2005.eko urriaren 6an egin zen, Hondarribia Kirol Taldearen egoitzan.

Bertan aditzera eman zenez, 1500 korrikalarientzat eman da baimena. Irailaren 19an internet bidezko izenemate epea ireki zen, urriaren 19an itxi zena. Internet bidez izena ematen duten lehen 300 pertsonen kalitatezko running galtzedi pareara oparitu zaie. Dortsala eta chipa Decathlonen jaso ahal izango dira urriaren 17tik 21era bitarte 18:00etatik 20:30etara.

Urriaren 11tik aurrera ohiko puntuetan izen emateak ireki ziren. Epea irekita egongo da urriaren 21a arte. Larunbatean, hilak 22, dortsalak geratuko balira, Irungo Decathlonen izen ematerik egongo da 16:00etatik 20:00ak bitarte.

Urtero bezala, autobus zerbitzua egongo da Hondarribitik Donibane Lohizunera. Autobusak erabili ahal izateko beharrezkoa izango da izen ematea egiterakoan lortutako dokumentazioa aurkeztea.

Edozein zalantza edo argibiderako www.donibane-hondarribia.com guneko foroa erabil dezakezue, edota hkt@wanadoo.es gunera zuzendu.



Donibane-Lohitzun eta Hondarribia lotzen dituen lasterketa Kirol Elkarteak antolatzen du beste urte betez



2006/2007 denboraldiko Hondarribiaren lehen taldea

Indartsu hasi da Hondarribia

Hondarribia Futbol Elkartearen lehen taldea, Preferente Mailan dagoena, talde historikoa da. Kategoria honetan urte gehien daramatzen hamaikakoa da, eta aurten mailari eusteko asmoarekin hasi du denboraldia, eta ahal den neurrian, urtea aurrera joan ahala, ikusiko da zer gehiago egin daiteken. Hondarribia eta Irungo jokalaria dira gehienak, eta urriaren 12an Ordiziari 2 eta 0 irbazi ondoren, sailkapeneko goi postuetan kokatu dira berdeak. ia horrela jarraitzen duten.

EXPERT
GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO
GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkartea • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

ESTHER ESPARZA

Kasino Zaharreko antzerki taldea



Adineko batzuek gazte askori egur latza ematen digute, eta kontrakoa pentsatzen duenak Kasino Zaharrera joatea besterik ez du iritziz aldatzeko. Bertan, Esther Esparza aktorea zuzendari hartuta, ilusioz beteriko talde bat biltzen da asteazken goizero, dramarik eta urteen zamarik gabe barre eta komedia egitera. Halaxe, hona jarraian Estherrek antzerki taldearen inguruan kontatutako kontuak.

Noiz eta zergatik sortu zen antzerki taldea?

Antzerki taldea Lourdes Villagranek sortu zuen 1999an eta Kasino Zaharreko ekintzen artean programatu zen. Ni 2004an hasi nintzen taldearekin; antzerki eskolak ematen dizkiet eta antzeztzen ditugun antzezlanak neronek zuzentzen eta moldatzen ditut. Antzezleak asko dira, adineko jendea da, lantzen ditugun gaiak ere desberdinak dira eta nolabait egokitu egin behar dira. Antzeztzen ditugun obrak nahiko bereziak dira eta komedia egiten dugu gehienbat.

Zenbat kide daude taldean? Zer eskatzen zaio taldeko kide izan nahi duen bati?

Orain 13 lagun daude eta taldea oso indartsu dago; aurren bi lagun berri hasi dira, baina taldea sortu zenetik bertan dauden kideak ere badiira. Taldean sartzeko ez dugu baldintza jakinik; gurea adineko jendeak osatzen duen antzerki taldea da eta antzezlanak beraien adinera egokituta daude. Ikastaroan parte hartzeko eskatzen den gauza bakarra ilusioa edukitzea eta antzerkia gustukoa izatea da. Patxadaz egiten dugu lan, jendea testuekin gehiegi aztoratu ez dadin. Lasaitasunez hartzen dugu kontu hau; pozez eta pazientzia handiz aritzen gara lanean.

Zein da antzerki taldeko kideen batez besteko adina?

60-80 urte bitarteko jendea dago; gazteagoek edo zaharragoek izen eman nahi badute ere, ez dago arazorik, baina ikastaroa adineko jendeari zuzenduta dago. Gainera, beste hainbat herritan ez bezala, gauza bitxia gertatzen da adina eta antzerkiaren kontuarekin Hondarribian. Beste herri batzuetan antzerkiaren inguruko ekintzetan

gazte eta nerabeek hartzen dute parte, baina hemen, hain justu, aurkakoa gertatzen da: gazteentzat ez dago antzerkiaren inguruko ekintzarik eta zaharrentzat, aldiz, bai.

Zer ekintza antolatzen dituzue? Non antzeztzen dituzue antzerki lanak?

Kasino Zaharrean kantuan ere aritzen da adineko jendea, baina ni ez nago gai horretan sartua, ni antzerkiaz baino ez naiz arduratzen. Antzezpenak Hondarribian egiten ditugu (Kasino Zaharrean eta Zuloagan), baina kanpora ateratzea ere pentsatu dugu, nahiz eta oraindik ez dugun horrelakorik egin. Erdi Aroko azokan "San Juan gaua" lana antzeztu genuen, iaz, berriz, "Mendigorria eta Navalcarnero kondeen istorioa", eta egin dugun azkena "Arima galtzen ari gara" deritzon komedia izan da. Horretaz gain, Teledonostiko "Nagusiak" programan ez ezik, Txingudi Telebistan ere parte hartu dute antzerki taldekoek. Gaitasun eta ilusio handiko jendea da taldean dagoena eta esan beharrik ez dago antzezteko guztiz onuragarria dela adineko jendearentzat. Depresioa eta tristuraren kontrako botikarik onena da antzerkia; memoria lantzeko primerakoa. Askok zahartzeko ere denborarik ez dutela esan izan didate, beraz, hortik pentsa zeinen lanpetuta ibiltzen diren!

Noiz egiten dituzue entseguak? Zenbatetan biltzen zarete?

Asteazken goizetan elkartzen gara 10etatik 12ak arte. Bat-batekotasuna lantzen dugu eta gogotik egiten dugu barre.



Antzerki taldearen irudi bat

Laguntzarik eta beharrik ba al duzue?

Orain antzezlan bat prestatzen ari gara eta momentuz ez duzu ezer behar. Hala ere, arropa behar dugunean ez dugu arazorik izaten. Etxetik gauza asko eramaten ditugu, baina arropa edo oihalen bat behar badugu, Gizarte Zerbitzukoek eta Maite Pelaezek laguntzen digute. Itxurazko lokala dugu eta antzezlanak hemen bertan egiten ditugunez, daukagunarekin moldatzen gara. Kanpora aterako bagina, orduan beste behar batzuk izango genituzke, noski.

Nolako antzezlanak lantzen dituzue? Euskara hutsean aritzen al zarete?

Ez, normalean euskaraz eta gaztelaniaz batera aritzen gara. Sketch laburrak egiten ditugu, elkarrir lotuta dauden eszenak (batzuk euskaraz eta besteak gaztelaniaz, baina aldi berean antzeztzen ditugunak). Normalean komediak egiten ditugu eta nik neuk antolatzen ditut, baina azken bat-bateko lana beraiek egiten dute. Ez dago aurrez prestatutako testurik, bat-bateko-tasuna lantzen dugu.

Lan handia al da taldea aurrera ateratzea?

Nik 4 talderen ardura dut eta oso aberasgarria da. Adineko jendeak oso ondo lan egiten du; oso serioak dira, diziplina handia dute eta talde lanean gustura aritzen dira. Haurrekin lan egitea zailagoa da.

Zer prestaketa behar da oholiza gainean antzezteko?

Ahotsaren prestaketa funtsezkoa da; antzezteari ondo entzun



Ainara Elizondo

behar zaio. Horrekin batera, jende aurreko beldurra galtzea ezinbestekoa da eta aurreiritziez ahaztea ere bai. Lasaitze eta arnas ariketak egitea beharrezkoa izaten da eta garrantzitsuen zera da: norberak barruan duen hori ahalik eta era naturalean jendaurrean agertzea.

Maila ona al dago taldean?

Bai, oso ona, meritu handia daukate. Euskal Herri osoan gutxi dira hainbeste denbora daramaten taldeak eta hain ondo lan egiten dutenak. Kasino Zaharreko antzerki taldea oso berezia da eta jende asko etortzen da bere lana ikustera. Hasiberrien gisako ilusioa jartzen dute eta ni oso pozik nago beraiekin.

Zeintzuk dira aurrera begira dituzuen asmoak?

Santo Tomas egunerako gabon kutsua duen antzezlan prestatzen ari gara. Komedia bat da, baina ez du izenburu zehatzik horretan duela gutxi hasi baikara. Lan neketsua da epe motzean egiten baitugu lan, baina ilusio handiarekin gabilta.



Antzerki taldea guztiz irekia da

BAR - RESTAURANTE LARRA

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



Pintxos, Bocadillos, Platos Combinados,
Menús del Día, Menús a la Carta.

**GESTIÓN:**

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGUROAK

Santu euskaldunak



Martin Iturbe

Portuko gure elizak Zuloaga kalera duen aurpegiko leihoetara begira egon nintzen lehenengo egun batean. Alderdi honetako pareta zabalean, erdian daraman Gualupeko Amaren irudi ederrez gainera, bi leihoaldi daramatza, eta bakoitzean bina begi kristal zurizkoak.

Orain bospasei urte, pentsatu nuen zuri une horiek santuren batzuen irudiz janztea. Aukera egiterakoan, bidezkoa zenez, santu euskaldunen irudiak jartzera irauli zen nere burua. Aukeratu beharko nituen lau santuen artean, bi gizaseme eta beste biak emakumezkoak izan beharko zuten. Gizonezkoen artean santu euskaldunak aukeratzen etzen oso zaila izan. Emakumezkoek eman zidaten ezinaren bizkarra.

Nere ezagupideak laburrak zirenez gero, Gotzaitegiko jakitunengana jo nuen. Handik zetorren erantzunak, neurri txikian ase zuen egarria. Gipuzkoa aldetik begiratuta, etzen agertzen santu eginiko emakumekorik. Esan zidatenez, handik hilabete batzuetara, aldareetara jasotzekoa zen emakume bat bai omen zela. Andoaingo alaba, Ama Kandida, hain zuzen, izango zen zorionsuen sailean gurtua izango zena.

Besterik ezean, beraz, emakumezkoa bat eta hiru gizonezko aukeratu nituen: Ama Kandida, Mikel

Garikoitz, Domingo Erkizia eta Berriotxoako Balendin, santu izendatu berria azkeneko hau.

Gerora jakin nuen, Erroma alde hartan, azken orduan aldareetara eramango izango zirenen artean, Tolosako alaba Maria Antonia Bandres sartuko zutela, bai sartu ere. Nere ametsei gozamenaren eman ahal izateko beranduegi gertatu zen. Horra hor beraz, Portuko elizan, koru aldeko leihoetan agertzen diren santuen aurpegi-irudiak zeinenak diren agertu.

Aipamen soil bat edo beste egitekotan, hauetxek aipatuko ditut hiru santu euskaldunei buruz. Lehen adierazitako bien ondoan Igokundeko Martizen eta Aozarazako Mikel kokatu beharko ditugu. XVIII. gizaldian, Japonian, garai beretsuan martiri izan ziren hiru gipuzkoar hauek.

Harrigarriak dira beren ibilaldiak. Bazterren batean hor izan behar du, Jose Ignacio Telletxeak gazteleraz idatzi zuen liburuaren itzulpena. Neuk itzuli nuen euskarara, Errezilgo Domingoren eta Aozarazako Mikelen bizitza harrigarritzkoak agertzen dira bertan.

Beste alde batetik, behin eta berriz aipatu dudanez, Hondarribiko famili jakin batzuen jatorria, santu horietako batean iturrian oinarritzen da. Hurrengoan argibide gehiago.

Euskal Herriko I Pintxo Lehiaketa ospatu da Hondarribian

Monica Sunsundegui, Hondarribiko Ostalaritzako Elkartearen presidentea

"Gastronomi jaialdi bikaina izan da, gure sukaldari onenen esfortzu eta sormenari esker. Honek, datorren urtean antolatuko den bigarren ediziorako indarrak berritzera eramango gaitu".

Jose Mari Salvador, La Bacaladera Zuzendari Gerentea

"Izandako esperientziarekin erabat pozik gaude, eta elikadura esparruko enpresa garen heinean, bigarren edizio bat laguntzeko prest gaude, lehenak izandako arrakasta kontuan izanik"

Juan Jose Lapitz, Epaimahaiko presidentea

"Erabakia hartzea ez da batere erraza izan, duda asko izan ditugu txapelduna zein izango zen erabakitzerakoan, kalitate handia izan den seinale"

Gasteizko Toloño tabernako Enrique Fuentes izan da Hondarribian ospatu berri den Euskal Herriko Pintxo Txapelketaren lehen garailea. "Milhojas de habitas sobre pisto de verde!" izeneko pintxoarekin irabazi du lehiaketa, Hondarribiko Ostalaritza Elkarteak antolatu duena, eta La Bacaladera eta Bodega Marqués de Arienzo babestuta. Horrela, 3.000 euroko saria irabazi du, txapela, saria, ziurtagiria eta Hondarribian hiru gau igarotzeko aukera.

Fuentes oso pozik agertu zen. "Iana gogor egin dugu sari hau irabazteko. Zapore aldetik asko landu dugun pintxo bat da, ahoan denbora baterako zaporea gordezten duen horietakoa. Esperantza banuen zerbait lortuko genuela pintxo honekin".

Lehen txapelketa honetan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko 42 establezimenduk hartu dute parte. Arrakasta ikusita antolatzaileek ez dute dudarik datorren urtean errepikatu egin behar dela.



Jose
Mari
Salvador
La Bacaladerako gerentea eta Enrique Fuentes garailea.



Kasino Zaharrak zerbitzu eta ja



Kasino Zaharrak itxura bikaina aurkezten du



Zuzendaritza Batzordeko kideak

Gimnasia, Tai Chi, abesbatza, antzerkia, ileapaindegia, podologia, helduen eta etorkinen hezkuntza, ACUBI eta zerbitzu gehiagoz gozatu daiteke Adinekoen Etxean

Hondarribiko Kasino Zaharrak ikasturte berrirako nobedadeak aurkeztu zituen urriaren 6an. Horien artean aipagarriena, Nagusilan Gobernu Kanpoko Erakundeak, lehen aldiz, bulego ordua izango duela Hondarribian, asteazkenero, 10.30etatik 12.00etara.

Horretaz gainera, Kasino Zaharrak eskaintza zabala prestatu du bere mila bazkideentzat. Txangoak, txapelketak, lehiaketak, jaialdiak, hitzaldiak, bazkari popularrak, omenaldiak...

Ohiko gimnasia eta tai chi ikastaroak emango dira, astelehenetik ostiralera goizetan. Kasino Zaharreko abesbatzak eta antzerki taldeak ere lanean jarraituko dute beste urte batez, Juncal Gascon eta Esther Esparzaren zuzendaritzapean.

Aurkezpen ekitaldian Maite Pelaez Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaz gain, Kasino Zaharreko

Zuzendaritza Batzordeko kideak izan ziren, Encarna Diez, Jesus Sancho, Joxe Zumeta eta Mari Luz Eizagirre. Angela Lopez-ek ezin izan zuen bertan egon. Hauekin batera, Jose Ignacio Guruceta Nagusilan-eko ordezkaria izan zen aurkezpen prentsaurrekoan.

Adinekoen etxeak astelehenetik larunbatera irekiko ditu bere ateak, 15.30etatik 20.30etara. Eskaintzen diren zerbitzuen zerrenda, ile-apaindegia, podologia, Acubi elkartearen kontsumo aholkularitza eta heldu eta etorkinen hezkuntza ikastaroak izango dira bertan. Hortaz gain, hileko lehen ostegunean odol ateratzeak egiten dira.

Maite Pelaez zinegotziak esan zuenez, "adineko pertsonen bazkide egin eta ikastaro eta ekintzetan parte hartzea animatzeko dei egiten diegu. Etxe honek eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzea nahi dugu".

rduera ugari antolatu ditu



Maite Pelaez zinegotziarekin



Kanpoko jardinetan jarduera ugari burutzen dira

Udazken eta neguko hilabeteetarako Kasino Zaharrak ekitaldi ugari antolatu ditu, ohiko zerbitzu eta ikastaroez gain. Irudi hauetan ikus daitezkeenez, Kasinoaren eraikin ederrak azpiegitura bikainak eskaintzen ditu era guztietako jarduerak burutzeko. Antzerkia, ileapaindegia, podologia, taberna, karta jokuak...

Zuzendaritza Batzordeko kideek behin eta berriz esan zuten ez dela bakarrik adinekoentzat den etxe bat. Edozein gaztek asko lagundu dezake adibidez Nagusilan elkarrean bolondres gisa lagunduz.




Eraikinaren barnealdea oso zainduta dago



Ezkerrean, karta jokuen aretoaren irudi bat, eta eskubian, Kasino Zaharreko taberna.

Saindua Gaztelekuan datozen lau hilabeteetarako ekitaldi ugari antolatu dira

Saindua Gaztelekuak jarduera sorta oparoa prestatu du. 12 eta 29 urteko gazteentzat pentsatuak dira, nahiz eta irteerak 12 eta 17 urtekoentzat diren baka-
rrik. Informazio gehiagorako, bertatik pasa edo **943 643198** telefonora deitu.



ra. Hala ere, Gaztelekutik gazteek eman ditzaketen proposamenak kontuan hartuko dira eta horren arabera irteerak antolatu, ahalik eta adostasun gehien izan dezaten.

Tailer desberdinak

Datozen lau hilabeteetarako, hilero eskaintza desberdin bat burutuko da.

Azarorako, Pitxigintza tailerra antolatu da, ostiralero 17:30etan. Abenduan ordea, Diaboloa deiturikoa izango da, ostiralero hau ere, eta 19:00etan. Urtarrilerako aldiz, Postregintza egongo da, ostiralero 17:30etan, eta azkenik, otsailean Larrugintza ostiralero 19:00etan.

Parte hartzeko baldintzetako bat adinarena da. Ikastaroak 12tik 29 urtekoentzat dira, eta gainontzeko guztia 12 eta 17 urte artean dabilzanentzat. Ekintzak aurrera atera daitezen gutxienez 9 partaide egon beharko dira. Tailerrak dohainik dira eta ikastaroak aldiz ordaintzekoak. Urte osokoak nahi dituenak, 60 euro ordainduko ditu eta lau hilabete nahi dituenak 35. Izen-emateak urriaren 16tik 27ra egin behar dira Saindua Gaztelekuan edo Gazte Informazio Bulegoan.

Saindua Gaztelekuak datozen lau hilabeteetarako ekintza sorta oparo bat prestatu du 12 eta 29 urte bitarteko gazteentzat. Ikastaroak, irteerak eta tailer ugari antolatu dira, baina hortaz gain, Sainduak irekita dauzka argazki laborategi bat, ikasgela, bilera gela, espresio gela, internet gela gazte zein elkarreentzat, elkarte gela bat barra eta ostalaritzako azpiegiturarekin, mahai, aulki eta antzeztoki batekin, eta nola ez, topagune bat, ezinbestekoak diren mahai joko, musika, mahaitenisa, futbolina, aldizkariak, CDteka, DVD eta Play Station famatuarekin...

Ikastaroei dagokienez, gitarra/baxua, perkusioa, kapoeira eta batukadantza eskainiko dira. Azaroaren 7tik aurrera hasiko dira, arratsaldeko ordutegiarekin, baina aurretiaz izena eman beharko da Saindua Gaztelekuan.

Iaz bezala, irteerak antolatuko dira. Orduan eskiatzeko irteera bi egin ziren, bata Arette-ra eta bestea Gourette-

Edozein duda izanda, hotsegin **943 643198** telefonora, **arratsalde 17:00etatik 21:00etara**.

Beranduegi



Lurdes Zubeldia

Txoko batean egoten zen, ez zuen eskatzen, baina bere begiradak agertzen zuen laguntza eske zebilela. Nahiz hotz, bero edo euri gure sentimen aldakorren lekuko honelako marmarrak entzuten tartezka: "Honek ere aski diñ lana billatzia" (erraza izango litzatekeen bezala hirurogei urtera hurbiltzen ari den gizonarentzat); "Lehenguan ikuxi ninen fumatzan... ezta sosik ere eionela eman". Berak eman ez eta besteri utzi ez. Astero astero elkar ikustean ohiturako hitz beharrek hasi ginen trukatzan. Egun batean bere txalekoko patrikeratik paper batzuek atera zituen esanez "gestioak egiten ari zela zertxo bat kobratzeko... hiru naziotan lan egin zuela, baina urte gutxi bakoitzean, eta paper kontu hori dena borobiltzeko luze xamar joango zela, hori kobratzean ez zuela gehiago eskatuko". Entzun nion baina ez nion gehiegi sinestatu, oraindik ere horrelako marmarrak artean entzuten zirelarik: "hizketan ardo usai ederra botatzen diñ... eztun txarra...". Beti gure iritzi okerrak botatzen.

Behin, zerbait ematera hurbildu nintzelarik, honela mintzatu zitzaidan: "Ya me han llegado los papeles y no vendré más a pedir, es duro... ya empiezo a cobrar". Bat batean bere hitzak nire barrenean lotsa sentiarazi zidaten, nire iritzi okerrengatik, bere jokaera finaren aurrean, konturatuz bera baino pobreagoa nintzela. Bihozkada sumatu nuen laguntza gehiago emateko, baina beranduegi zen... orain ez zuen gure laguntza beharrik. Bere azken hitzak hauek izan ziren: "En este pueblo hay de todo, pero gente buena también. Gracias."

Ez nintzen lasai gelditu pentsatuz hainbeste behar ez diren gauzetan, tutik ere esan gabe ordaintzen dugula, baina, besteri laguntzeko, zenbat belar txar sortzen zaizkigun gure iritzietan, jakinik besteri laguntzea dela zuzentasun eta pakearen hazia, behar beharrezkoa. Ikasiko ahal dugu!



eukeni
optika

niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

Focus
DAILIES™

Ikusmen egokitzemota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire nire lentillak
betaurrekoak Focus DAILIES



CIBA
Vision

XX. mende haserako lanbideak zeintzuk ziren Hondarribian



Koldo Ortega

XX. mende haseran, Hondarribiak oraindik ez zuen portu azpiegitura egokirik, eta zalantzarik gabe hau zen jarduera ekonomikoetan zegoen arazo nagusienetakoa. Horregatik, Javier Ugarte Sustapen Ministroak, gure herriaren defendatzaile nagusienetakoa, gero Herriko Seme Kuttun izendatua izango zena, Getaria eta Hondarribiko portuak, arrantzontzientzat babes-portu izendatu zituen.

Urte gutxitan, gaur egun dagoen tokian eraiki zen kaia, nahiz eta 1919ko ekaitza batek hainbat matxura eragin zizkion, eta hondatu egin zuen. Orduko datuak aztertzen badiugu, 'Hondarribia 1876 eta 1931. urteen artean' (Hondarribiko Historia, 297-316 orr.) artikuluan Carlos Larrinagak dioenez, 1916an 197 familia zeuden Hondarribian arrantza eta bere inguruan sortzen diren jarduerekin bizitzen.

Hala ere, Udal Artxibategian oso interesgarria den dokumentu bat topatu dugu honen inguruan. Orduko alkate zen Felix Laborda bilera bat deitzen du Udaletxeko Areto Nagusian, uztailearen 23an ospatuko zena, arrantzaleez osatutako traineru bat prestatzeko, irailean Kontxako banderak parte hartu ahal izateko.

Udal dokumentu honetan bilera honetara deituak izan ziren herritar guztien izena agertzen da, bakoitzaren lanbidea agertzen delarik. 1916ko Hondarribiko gizartea eta ekonomia nola egituratzen zen jakiteko dokumentu paregabea beraz. Denetara 234 pertsonen izen eta lanbide agertzen dira, eta beste xelebrekeria askoren artean, honako hauek azpimarra ditzazkegu:

Apaizak: Auspicio Otaegi, Jose Vicuña, Pedro Argaya, Silvestre Muñagorri, Vicente Ballarin eta Segundo Garaialde.

Egunkariak: Ecos del Jaizkibel (Marcos Lapitz) eta Euskal Herriaren Alde (Gregorio Mujika)

Medikoak: Jose Mari Laborda, Juan Jose Oiarzabal eta Jose Videgain

Farmazia: Jacinto Fernandez de Casadevante

Maixuak: Ambrosio Saseta, Francisco Lizarazu, Miguela Gil, Cristina Garmendia, Josefa Luisa Eguino

Marmolaria: Francisco Sagarzazu (gero Alkate izango zena)

Hotelak: Alameda (Agustina Garcia), Mouriscot (Rafael Urrutia), Concha (Juan Jauregi), de France (Jose Salvador Gomez), de Santos (Olegario Jauregi) eta Peñon (Manuez Baz)

Kafe eta Tabernak: Justo Guevara (La Gloria), Valentina Olasagasti (Damari), Olegario Anza (Komentua), Josefa Uranga (Santa Engrazia), Eusebio Ordaz (Casa Telleria), Salvador Ezeiza (Kale Nagusia), Jose Mari Uribe (Kale Nagusia), Badiola eta semeak (Kale Nagusia), Romualdo Iriazabal (Kale Nagusia), Juan Agustin Olaziregi (Denda kalea), Bruna Sagarzazu (Denda kalea), Francisca Lopez (Arma plaza), Antonio Zulaika (Villa Alberto), Fructuoso Cairo (Bar Antonia), Candelaria Olasagasti (Javier Ugarte kalea), Roman Alza (San Pedro kalea), Acacio Agueda (San Pedro kalea), Encarnación Iriazabal (San Pedro kalea), Leoncia Perez (San Pedro kalea), Toribio Etxebeste (San Pedro kalea), Salvador Lapitz (Santiago



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

kalea), Senen Aseginolaza (Zuloaga kalea) eta Manuela Kanpandegi (Matxin Artzu kalea).

Relax-erako komertzioak: Esperanza Laborda eta Benita Iriazabal

Zapatariak: Justo del Pie, Agustin Zubeldia eta Eutiquio Garcia.

Barberoak: Francisco Sagrado, Jerónimo San Juan, Ricardo Sagrado, eta Pedro Oronoz.

Bañeroak: Pedro Gonzalez, Urbano Gonzalez, Francisco Hernandorena eta Basilio Lekuona.

Pasteleria: Manuel Diaz

Arotzak: Sagarzazu anaiak, Pedro Antonio Errazkin, Matias Arozena, Francisco Etxebeste, Pedro Zabala eta Francisco Ortiz

Pintoreak: Juan Portu, Andres Agingalde, Angel Amunarriz eta Francisco Amunarriz

Alpargateroak: Francisco Tolosa eta Jose Carrera



Okindegia: Manuel Salaberria, Juan Garmendia, Jose Garmendia eta Segundo Martinez.

Hauek dira, beste askoren artean, zerrenda oparo honetan agertzen diren hondarribiarrak. Beraiek erabaki zuten zeintzuk izango ziren 1923ko Kontxako Estropadan parte hartuko zuten arraunlariak.

Zerrenda oso zabala eta aberatsa da. Udal Artxibategian dago eta edonork kontsulta dezake. Pena merezi du.



Duela ehun urteko hotel azpiegiturak eta gaur egungoak asko aldatu dira, irudian ikus daitekeen modura



Pio Barojaren omenezko ekitaldiak izan dira Hondarribian



Txapelketan parte hartu zuten ontziak Butroi pasealekuko hondartzetik atera ziren

2006. urte honetan mende erdia betetzen da Pio Baroja idazlea hil zenetik. Urteurren hori gogoan, Irungo Pio Baroja institutuak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Limes bildumak Presencias de Pío Baroja-Pio Baroja gogoan izeneko egitasmoa eratu dute. Bertan, jarduera ugari antolatu dira, hitzaldi, erakusketa, irakurketa, baita estropadak ere.

Azken hau irailaren 30ean eta urriaren lehenean ospatu zen Hondarribiko uretan. Jakina da Pio Barojak zenbait eleberri eskaini ziela itsasoari, arrantzaleen bizimoduari, belauntziei... eta horietan 'Shanti Andia' edota 'Capitán Chimista' bezalako itsas-gizonen ibilerez edo menturez jardun zuela.

Lehen estropada, batelena, irailaren 30ean burutu zen, lau neska-mutil eta patroiz batez osatutako traineruetan. Parte hartzaileak Getxo, Ondarru, Tolosa, Irun eta Hondarribiko institutuetaiko ikasleak izan ziren.

Igandean, ordea, Tertioko Belaontzien batel-lehiaketa ospatu zen Kirol-Kaitik abiatuta. Handik, Bidasoan gora Faisaien irlaraino heldu, irla inguratu eta Kai Zaharrera itzuli behar zen. Parte hartzaileen artean, Sokoa, Pasaia, Trintxerpe, Donostia, Bermeo eta Hondarribiko kirolariak zeuden. Emaita da gutxienekoa, baina herritarrek paper duina egin zuten. Batel-lehiaketa ospatzeko ezinbestekoa izan zen Hondarribiko Udalaren laguntza, antolatzaileek behin eta berriz eskertu zuten.



bar-restaurant
**arrantzaleen
kofradia**

Menú del Día Menú Especial
Carta
Pintxos Fríos y Calientes

Pº Iribarren, s/n -nueva lonja
20280 - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 64 42 12





Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etkez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

*Garaile irten zen ontziaren
patroia bere familiarekin*

Jarduera ugari datozen asteotan

Pio Barojaren omenezko ekitaldi ugari antolatu dituzte EHUK eta Irun eta Madrilgo Pio Baroja institutuek. Irailaren amaieran aurkeztu ziren Hondarribiko Paradorean, bertako Udaleko, Irungo eta Berako ordezkariak izan zirelarik. Hala ere, aurkezpeneko izarra Pio Caro Baroja izan zen, idazlearen iloba.

"Abiadura Handiko Trenaren abiadura ibiltzera derrigortuta gauden garai honetan, Pio Baroja ezinbesteko geltokia dugu, jitoan ez gabiltzala erakusteko". Hitz horiekin hasi zuen atzo Esteban Antxustegi EHUKo irakasle eta EHUKen Limes liburu bildumaren arduradunak, Hondarribian, Limes bildumak Irungo eta Madrilgo Pio Baroja institutuekin batera Pio Barojaren omenez antolatu duen *Pio Baroja gogoan* ekitaldi sorta oparoaren aurkezpena. Aurkezpen horretan, Pio Barojaren "independentzia" eta "izaera kritikoa" laudatu zituen Pio Caro Baroja idazle eta Pio Barojaren ilobak.



Irunen, Hondarribian, Beran, Donostian eta Madrilan egingo dira ekitaldiak, eta modu askotan omenduko dute Baroja: idazlearen nahiz adi-tuen hitzal-diak, Barojaren *Paradox Rey* antzerki lanaren euskarazko nahiz gaztelaniazko irakurketa dramatizatuak, Pio Caro Barojaren film laburren emanaldiak... eta baita belaontzi zaharren arteko estropada bat ere.

Horretaz gain, urrian zehar Pio Barojaren berezko tamainako eskultura bat ezarriko du Irungo Udalak Kolon pasealekuak eta Zabaltza Plazak bat egiten duen gunean. Sebastian Miranda eskultoreak 40ko hamarkadan egindako neurri txikiko eskultura baten brontzezko erreproduktzioa da ezarriko dutena, Alfa Arte enpresak egina.

OTXOA JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA



Udalak 75.000 euro banatu ditu Gobernuz Kanpoko Erakundeen artean

Urriaren 10ean ospatutako Gobernu batzordean Gobernuz Kanpoko Erakundeei dirulaguntzak ematea erabaki zen. Aurkeztu diren erakunde kopurua 21ekoa izan da eta hauetariko bederatzik jaso dute dirulaguntza.

Erabilitako irizpideen artean, garatu gabeko herrialdeetako biztanleen ekonomi eta gizarte garapenerako premiei eta bereziki gizarte mailarik apalenen funtsezko premiei erantzutea izan da lehena. Bestalde, proiektu edo ekintza horrek

onuradun gisa garapena areagotzea, abian jarritako jarduera beraiek kudeatu behar dutenean; horretarako gai izan daitezkeen. Azkenik, garapen komunitarioko egitarauen barruan burutzea, komunitate onuraduneko kideen partaidetza eta prestakuntza sustatzea eta toki antolakuntzen garapena bultzatzea.

Orotara 74.549 banatuko dira, eta jarraian aipatuko ditugun erakundeek jasoko dute laguntza hori:

"DOA" (Denok Osasunaren Alde). Herria GUATEMALA
Hezkuntza bereziaren arloan elkarlanaren hastapenak
15.200 €

"BEHAR BIDASOA". Herria RWANDA
Elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko formazioa
9.500 €

"PROMOCIÓN EKUMENE". KONGO Errepublika Demokratikoa.
Putzuak zulatu eta ura ateratzeko ponpak.
6.000 €

"TAUPADAK". Herria BOLIVIA.
Emakume indigenak laneratzea
12.000 €

"LANKIDETZAKO INGENIARIAK".
Herria KONGO Errepublika Demokratikoa.
Emakumeei zuzendutako formazioa
7.000 €

ELAN - EUSKADI ONG Herria CUBA.
Sentsibilizazio kanpaina. Informatitako materiala bidaltzeko.
4.000 €

ASOCIACION PARA LA COOPERACION CON EL SUR - ACSUR LAS SEGOVIAS Herria CUBA.
Elikagaiak ekoizteko laguntza eta autokudeatzeko ahalmena hobetzea.
7.500 €

"GURE LAGUNTZA". Herria INDIA.
Hezkuntza egiturak handitu eta hobetzea. Laborategia hornitzea
6.000 €

"EUSKAL FONDOA". Herria NIKARAGUA
Somotoko Alkatetzarako azpiegitura
7.549 €

Dirulaguntza hauetaz aparte udalak Bidasoa Bizirikekin bi hitzarmen sinatuta dauzka. Urriaren 10eko Gobernu batzordean Gizarte zerbitzuetako esparruan dabilzan elkarteei dirulaguntzak ematea onartu zen. Aurkeztutako elkarte kopurua 22 izan ziren eta 21ek lortu zuten dirulaguntza. Orotara 18.755€ko laguntza banatu da:

- ATZEGI , 1.145,43 €
- FUNDACIÓN IZAN, 1.100 €
- ALCER, 750 €
- ATCORE, 600 €
- AFAGI, 1.120 €
- AURRERATU, 1.000 €
- ADEMGI, 750 €
- ASPARGUI, 600 €
- ATC, 400 €
- FUNDACION ESCLEROSIS MULTIPLE EUGENIA EPALZA, 1.000 €
- KATXALIN, 1.000 €
- AECC, EUSKADI CONTRA EL CANCER, 600 €
- ASOCIACION CLARA CAMPOAMOR, 450 €
- ORTZADAR, 600 €
- ASPANOVAS, 450 €
- ACABE, 600 €
- AGIPASE, 300 €
- ASOCIACION FAMILIAS SOLIDARIAS BIDASOA-UCRANIA, 600 €
- NAGUSILAN, 350 €

Eztia: ezinbesteko elikagaia

Duela berrehun urte edari eta janariak gozatzeko erabiltzen zen gozagarri bakarra eztia zen. Gaur egun erabilerak asko aldatu dira, gozatzeko baino gehiago erabiltzen baitugu sendatzeko.

Erleek ekoiztutako produktu hau, landare- eta animalia-jatorriko produktuen erdibidean dago. Landareen nektarean du jatorria eta erleek aurrealdio bat egin ondoren kontsumitzen dugu.

Nutrizioaren ikuspuntutik, eztiak azukre zuriak baino energia-kantitate txikiagoa eskaintzen du (304 Kcal/100 g, azukreak berriz 340 Kcal/100 g), pisu berdinean ur gehiago duelako. Eztiaren ur-kantitatea osagai guztien % 20aren azpitik izan ohi da, eta kalitatez egokiena % 17-18 ura duena izango litzateke. Karbohidratoak dira eztia osatzen duten funtsezko osagai bakarrak, proteina gutxi batzuk besterik ez dituelako. Karbohidratoak batik bat glukosa eta fruktosa dira (% 82), sakarosa apur batekin. Gatz mineral eta bitaminak ere ugari ditu: burdina, magnesioa, kaltzioa, potasioa, C bitamina eta B taldeko bitamina guztiak, B12 izan ezik.

Azukre zuriarekin alderatzen badugu, eztiak bi abantaila ditu:

-Barneratzen dugun azukre zuria energia bilakatzeko, beharrezkoak izaten dira beste janari batzuetatik eratorritako bitaminak. Eztiaren kasuan, berriz, eztiak berak ditu bere karbohidratoetatik energia ekoizteko beharrezko diren bitaminak, horrela ez du bitamina-eskea handitzen.

-Azukreak ez bezala, eztiak ez du txantxarrik eragiten. Gainera, uste askoren kontra, eztiak ez ditu hesteak lehortzen, eta labaingarri gisa jokatu du.

Jatorrizko lorearen arabera ezti-mota asko daude. Bata bestearen arteko aldea glukosa- eta fruktosa-kopuruetan datza batik bat. Hona hemen horietako batzuen ezaugarri eta propietateak:

-Erromero-eztia: estres eta neke handia dagoen kasuetan, bizigarria da eta gibelaren funtzionamenduan laguntzen du.

-Arte-eztia: kolore ilun samarra du, zaporez leuna eta oso aberatsa gatz mineraletan.

-Eukalipto-eztia: eztula edo arnas aparatuko gaixotasunen aurka oso eraginkorra da.



Irailaren 19tik urriaren 21ra

- Lima 3 zereal esnea: 3,35 €
6 +1 dohainik & 10 + 2 dohainik
- Lima soja esnea: 1,95 €
6 +1 dohainik & 10 + 2 dohainik
- Rojo Lima fruitu zukuak: 3,65 €
2 + 1 dohainik & 12 + 8 dohainik
- Robis erregina-jele: 18,88 €
2 unitate % 20 deskontua
- Dietisa sojatzko letizina: 8,95€
2 unitate % 20 deskontua
- Biocop arroz tortak: 1,45 €
2 unitate % 20 deskontua

.Arreta pertsonala


EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



CLEOPATRA


Detektibe-istorio umoretsu eta ganberroa egin du Jon Arretxe, orain bi urte plazaratu zuen Manila konexioa haren ildotik. Simon Artabe eta bere laguntzaile

Etxebe, munduko ikertzaile xeble eta kalamidadeak kasu berri bat argitu nahian dabilta, direnak eta ez direnak lardaskatuz eta endredatuz.



HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituen. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri"k idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturearen ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Histori-aurretik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzaz izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



ODOLEAN NERAMAN

Futbolaren munduan girotutako nobela umoretsu eta kritikazkoa idatzi du Joan Mari Irigoienek. Eneko Ortegak txikitatik eduki du garbi futbolaria izan nahi zuela, bazituen dohainak eta horretara bultzatzen zuen inguruak ere. Arrakasta lortuko du: Real eta Bartzelona, Euskadiko zein Espainiako selekzioaren elastikoak jantziko ditu; diruarekin batera ospea, emakumeak eta beste lortuko ditu, baina baita arrakastaren zama ezagutu ere.



PASEOS POR LA CIUDAD

Hirian barrena irudime-nez ibiltzen lagunduko dizu liburu honek, inguruari erreparatzeko eta etxe edo ikuspegi baten aurrean gelditzeko gonbitea egingo dizun testu baten laguntzaz. Testuarekin batera modu eraginkorrean, irudimena piztuko dizuten akuarelak, marrazkiak, irarlanak eta argazkiak azalduko zaizkizu.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**



Kurtso berriarekin, jarduera berriak

Abian da Euskadi Gaztearen XVI. Maketa Lehiaketa

Diskorik kaleratu gabe eta disko-kontraturik ez duten Euskal Herriko musika-talde eta bakarlari guztiek parte hartu ahal izango dute, urriaren 27a baino lehen EiTBen egoitzetara maketa bat bidalita.

Informazio gehiago nahi baduzu, sartu www.egaztea.com orrian eta han bertan eskuratuko duzu.

Gipuzkoako Gazte Informazioko Sareak **DOAKO IRAGARKIEN ZERBITZU BERRIA** eskaintzen dizu.

ZUREIRAGARKIAK.NET web orriak gazteentzat baliagarriak izan daitezkeen eskaintzak jasotzea eta zuen artean informazio-trukea erraztea du xede

NEGUKO ORDUTEGIA (Irailaren 15etik aurrera)

Gazte Informazio Bulegoa arratsalde irekiko da:

Astelehenetik ostiralera:
16:30etatik 20etara

Larunbatetan:
10etatik 13etara



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL
TABERNA · BAR



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Zein kaletan dago lehoi hau ?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Iazko azken alean jarritako galderari ia 50 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Beñat Sagarzazu Ezponda**. Berak esan bezala, gurutze hau Kontraminen Galeria bezala ezagutzen da. Azken hileotan Udalak galeria hau birgaitzeari ekin dio, eta zenbait astez irekita egon da bertatik igaro nahi izan dutenentzat. Historikoki funtzio oso garrantzitsua bete du galeriak.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Gure herriko kale batean dagoen eskultura bati buruz galdetzen dizuegu. Bere ondotik askotan igaro gara, baina ziur asko ez garela kalearen izenaz gogoratzen. Memoria apur bat egin eta erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera azaroaren 10a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.

SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Errota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

Kai berriaren irudi zahar bat



Berriro ere Hondarribiko Udaleko Udal Artxibategira jo dugu bertan dauden altxor ikaragarriei irteera bat emateko asmotan. Oraingo honetan apur bat aldatzea erabaki dugu, eta beste ikuspuntu bat erabili nahi izan dugu, beti eraikinak eta kaleak argitaratzen baititugu.

Jakingo duzueenez, 1915. urtean egin zen Hondarribiko Kaia. Hala ere, oso gutxi iraun zuen lau urte gero-ago ekaitz gogor batek puskatu egin zuelako. Urte askotan egoera tamalgarrian geratu zen, dirurik ez baitzen hura konpontzeko.

Orduraz geroztik, aldaketa haundiak izan ditu kaiak, gaur egun duen itxura lortu arte. Irudi hau 60. hamarkadako da. Ordutik aurrera zenbait hobekuntza izan dituela ikus dezakegu.

Etxean horrelako altxorak dituen jendeak, eta gure aldizkarian argitaratuak ikusi nahi dituenak, Hondarribiko Udaleko Udal Euskara Batzordera bidaltzea besterik ez du, gustora asko argitaratuko ditugu eta.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
r e s t a u r a n t e

Hiqer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

Iraila2006

JAIOTZAK

JAIOTZAK ABUZTUAN

30an: PEDRO Telletxea Iparragirre, Madrilako Pedro Manuel eta Irungo Sararen semea.

JAIOTZAK IRAILEAN

1ean: IGNACIO Carril Barreda, Donostiako Fernando eta Iruñako Maria Eugeniaren semea.

2an: GALDER Zubillaga Manterola, Hondarribiko Felix eta Hondarribiko Maiteren semea.

2an: NAHIA Ormategi Traba, Urretxuko Jose Antonio eta Finisterreko (A Coruña) Socorroren alaba.

2an: KEVIN ALEXANDER Quitximbo Sarango, Laja Paltas-eko (Ekuador) Jorge Eduardo eta Quitoko (Ekuador) Paulina Beatrizen semea.

8an: ADUR Oiarzabal Hidalgo, Hondarribiko Juan Ignacio eta Irungo Maria Isabelen semea.

11n: HAIZEA Portugal Escudero, Donostiako Francisco eta Irungo Rebecaren alaba.

13an: JUNE Jauregi Pintos, Hondarribiko Santos eta Donostiako Ainhoaren alaba.

13an: MALEN Goikoetxea Taberna, Hondarribiko Jose Luis eta Hondarribiko Ainhoaren alaba.

14an: JON Hernandez Garcia, Santanderko Jesus eta Santa Cruz de Tenerifeko Guacimararen semea.

15an: ANDER Lazkanotegi Etxegoien, Hondarribiko Remigio eta Irungo Ainararen semea.

19an: JONE Sagarzazu Garmendia, Hondarribiko Mikel eta Hondarribiko Garbiñeren alaba.

20an: XABIER Pascual Urtizberea, Irungo Ivan eta Pasaiaiko Saioaren semea.

23an: ARAI Sarasola Iriarte, Hondarribiako Aitor eta Irungo Junkalren alaba.

24an: JULEN Martinez Olazabal, Hondarribiko Santiago eta Hondarribiko Maria Teresaren semea.

26an: MAREN Arteaga Hoyos, Irungo Jose Manuel eta Hondarribiko Zaloaren alaba.

29an: HAIZEA Sistiaga Egia, Hondarribiko Unai eta Hondarribiko Jaioneren alaba.

30an: MARTIN Lekuona Betelu, Donostiako Unai eta Donostiako Idurreren semea.



EZKONTZAK

EZKONTZAK ABUZTUAN

19an: ASIER Moran Jorge, Irungoa, eta HIART Aginagalde Ziardegi, Aretxabaletakoa.

26an: JULIO Garcia Beloki, Donostiakoa, eta MARIA SONIA Herce Susperregi, Erreterriakoa.

EZKONTZAK IRAILEAN

2an: CHRISTIAN MICHAEL Rutherford, Katlerin-Nord Harts-ekoa Ingalaterrakoa, eta SARA Gutierrez Pino, Hondarribikoa.

16an: JOSE RAMON Camacho Perez, Donostiakoa, eta MARIA TERESA Zeberio Urbiet, Hondarribikoa.

16an: JUAN CARLOS Garcia Jimenez, Donostiakoa, eta JAIONE Rodrigo Etxaide, Irungoa.

23an: JOSE JULIAN Prieto Villate, Irungoa, eta MARIA del PILAR Beltran Valero, Barakaldokoa.

23an: IÑIGO Blanco Gasull, Irungoa, eta MARIA JUNCAL Sarratea Lekuona, Irungoa.

23an: AITOR Yubero Genua, Hondarribikoa, eta AMAIA Zubialde Hernandez, Irungoa.

23an: IÑIGO Lopez Guitera, Hondarribikoa, eta RUTH Ribes Lazkanotegi, Hondarribikoa.

23an: IÑIGO Esteve Herreros, Bartzelonakoa, eta MARIA Azketa Garmendia, Hondarribikoa

30ean: JOKIN Jimenez Perrino, Irungoa, eta OHIANA Parada Garcia, Donostiakoa



HERIOTZAK

5ean: MARIA PILAR Eizagirre Elizazu, Hondarribikoa, 73 urte, Ama Guadalupekoa kalean.

8an: MARIA JUNKAL Errazkin Berra, Irungoa, 70 urte, Blas de Lezo kalean.

9an: MIREN EDURNE Goikoetxea Soroa, Hondarribikoa, 54 urte, Zubieta kalean.

10ean: JUAN Garate Alkorta "Maltzeta", Azkoitiakoa, 82 urte, Zuloaga kalean.

12an: URKO Cuñado Narro, 29 urte.

13an: JOSE ANTONO Lapitz Salaberria, Hondarribikoa, 76 urte, Irunen.

21ean: FLORENCIO Sorondo Iriberry, Hondarribikoa, 79 urte, San Pedro kalean.

23an: ESTRELLA Blanco Telletxea, 60 urte, Iruñakoa, Zuloaga kalean

30ean: AGUSTIN Asurmendi Bergara, Donostiakoa, 82 urte, Higer bidea kalean.

30ean: TOMAS Oianguren Ajuria, 75 urte, Eibarkoa, San Pedro kalean.



IRAILEKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperaturarik gorena:	33,0° C, hilaren 20an.
Temperaturarik beherena:	11,8° C, hilaren 27an.
Bataz besteko tenperatura:	20,7° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 75
Euri-litroen kopurua:	297,5 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 15ean 113,9 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 15eko 7,55etan, 63,0 litro.
Egun euritsuak:	13 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak:	0 egun
Ekaitz egunak:	7 egun
Behe-laino egunak:	3 egun
Ihintz egunak:	8 egun
Eguzki kopurua:	165,2 ordu
Bataz besteko presioa:	1014,2 milibar
Presiorik gorena:	1025,7 milibar, hilaren 4an
Presiorik beherena:	1001,5 milibar, hilaren 21ean
Haizea >55 Km/ord.	Egun 3
Haizerik indartsuena:	hilaren 12eko 11,48tan, 71 Km/ord.

ARRANTZALE KOFRANDIAN IRAILEAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Hegalaburra (Thunnus thynnus): 32.889 kilo.
Hegaluzea (Thunnus alalunga): 300.835 kilo.
Atun moja (Thunnus obesus): 695 kilo.
Lanpo (Euthynnus pelamis): 519 kilo.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK IRAILEAN

Altak: Jaiotzak: 16, eta kanpotik etorriak: 47
Bajak: Hildakoak: 27 eta herritik joanak: 6

IRAILEKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK

Mailegatutako liburuak: 135 euskaraz, 754 gaztelaniaz eta 13 bestelakoak. Guztira: 767 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 46 euskaraz, 164 gaztelaniaz eta 6 bestelakoak. Guztira: 218.

Bazkide berriak: 7 gizon eta 17 emakume. Horietatik 16 heldu eta 8 haur. Guztira 24.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: KNISTER-Kika supersorgina eta piratak-Gero
Gaztelaniaz: IBAÑEZ. Las mejores aventuras de Mortadelo y Filemón-ED.B

Helduak:

Euskeraz: ELGORRIAGA, Unai-Vredaman- Elkar
Gaztelaniaz: BENZONI, Juliette.- La alcoba de la reina-Vergara

Joski

. LENTZERIA ARROPA
. HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA



Jaso DOAN zakarrontzia, birziklatzen lagunduko dizu

Informa zaitez
etxera bidali
dizugun eskutitzan



www.txinzer.com